

# Genero-berdintasunaren indizea

Eraitzen analisia

## Emitzen analisia

### **1. Genero Berdintasunaren Indizea genero berdintasunerako neurri gisa, erabilitako metodologia eta 2005-2015 seriearen ezaugarriak**

Genero Berdintasunaren Indizea adierazle mota bat da eta balio bakarrean laburbiltzen du gizarte jakin batean zein mailatan lortu den sexuen arteko berdintasuna. Erabateko berdintasuna, bizitzaren esparru guztietan, ez da inoiz inon lortu, beraz, indizea alderantziz interpretatu daiteke, hau da, gizaritari oraindik ere berdintasun erabateko lortzeko geratzen zaion distantzia legez.

Genero Berdintasunaren Indizeak labur azaltzen du errealitatearen maila desberdinetan gertatzen dena, horien artean, ekonomia, lan-merkatua, familia-bizitza eta bizitza soziala; horregatik, indizea ezin da aldagai edo adierazle bakar baten bidez lortu; aldiz, oinarritzko adierazle osatutako serie bat hautatu behar da, bizitza ekonomiko, sozial eta politikoen fazeta bakoitzean gertatzen dena deskribatu ahal izateko moduan; gainera, oinarritzko adierazle bidez jasotako informazio osoa indize bakarrean laburbiltzeko metodoak ezarri behar dira. Bestalde, sexuen arteko berdintasun-maila neurtzera bideratutako indize orok formula bat izan behar du, oinarritzko adierazle bakoitzean berdintasun-maila neurtu ahal izateko; hori da berdintasunaren “metrika” deitzen duguna.

Aurreko erabakiak dira -metrikaren diseinua, adierazle hautaketa eta agregazio-irizpideak ezartzea-, bigarren mailako beste batzuekin batera, Genero Berdintasunaren Indizea kalkulatzeko erabiltzen den “metodologia” osatzen dutenak.

Gaur egun, badaude hainbat metodologia arlo honetan; aurreratuenetako bat Genero Berdintasunerako Europako Institutuak (EIGE) egindako proposamena da. EIGE institutuak ez du soilik metodologia hori garatu; gainera, aplikatu egin du eta Europar Batasuneko 28 herrialdeetako bakoitzerako berdintasun indize bat lortu du, eta beste bat EB-28 agregaturako. Gaur arte, EIGE institutuak bere Genero Berdintasunerako Indizearen hiru edizio argitaratu ditu. Horietako bakoitzean, aurrekoekiko aldaketa metodologikoak ezarri ditu. Zehazki, 2017ko edizioak, gaur arteko azkenak, eguneraketa metodologiko sakona dakar. Erabilitako adierazle sortari zein berdintasuna neurtzeko moduari eragiten diete aldaketek. Ondorioz, 2017ko metodologiaren bidez lortutako emaitzak ezin dira aurreko edizioetakoekin konparatu. Ondorioz, 2017ko ediziorako EIGEk serie homogeen bat argitaratu du, metodologia berri hori 2005, 2010, 2012 eta 2015eko urteei aplikatuz.

2016an, EUSTATEk Euskadiko Genero Berdintasunaren Indizea landu zuen, lehen aldiz, EIGEk indarrean zeukan metodologia erabiliz, hau da, 2015eko ediziokoa. Alderagarritasuna eta emitzen erabilgarritasuna kontuan hartuz, Euskadiko Indize horren bigarren edizioan, zeinen emaitzak dokumentu honetan eman diren, EUSTATEk bere metodologia eguneratzea erabaki du eta EIGEn 2017ko ediziokoa erabili du. Erabaki horren ondorio naturala zera izan da: txosten honetan aurkeztutako emaitzak ez dira homogeenak Euskadiko Indize honen aurreko edizioan argitaratutakoen aldean, eta ezin da batzuen eta besteen arteko konparaketarik egin. Gorabehera horren aurrean, EUSTATEk EIGEn gisa jokatu du, hau da, berriz ere kalkulatu du Euskadiko Indizearen serie oso eta homogeen bat, 2010, 2012 eta 2015 urteetarako.

Lortutako emaitzak behar den moduan interpretatzeko, kontuan izan behar dugu Genero Berdintasunaren Indizea ez dela desberdintasuna neurtzeko tresna, baizik eta berdintasun-maila neurtzekoa. Indizeko balio altuago batek, dimentsio edo azpidimentsio jakin bateko balio altuago batek legez, esan nahi du gizon eta emakumeen arteko berdintasun-maila handiagoa dela. Berdintasuna neurtzeko eskala adimentsionala da eta batetik ehunera bitarteko balioak hartzen ditu.

Ondoren, txostenaren gainerakoan adierazi eta interpretatzen diren ondorioetako batzuk laburbiltzen dira:

- 2015Ean, Euskal AEko GBI 69,3 puntuko da.
- UE-28 taldeko herrialdeekin alderatzen badugu, ikus dezakegu Euskadi batez besteko balioaren gainera dagoela. Multzo horretan dauden herrialdeak europar eraikuntzaren proiektuan denbora luzeagoa daramaten herrialdeak dira, batez ere.
- Europako herrialde gehienetan gertatzen den moduan, Euskal AEko GBI hobetu egin da 2010eta 2015 urteen artean. Tarte horretan, indizea 0,5 puntu handitu da, 68,8 puntuko izatetik 69,3 puntuko izatera pasatuz. Hazkunde hori EB-28 taldeko herrialdeen osotasunean emandakoa baino txikiagoa izan da.
- Euskal AEko GBI indizearen barruan, genero-berdintasunaren baliorik handienak Osasun eta Diru arloan lortu dira. 2015ean, bi dimentsio horien berdintasun-neurriak 90,9 eta 84,5eko puntuazioak dira, hurrenez hurren. Hala ere, Euskadiren balioak EB-28 taldekoekin konparatuz gero, Euskadiren kasuan nabarmenak diren bi dimentsioak ez dira horiek, baizik eta Boterea eta Denbora. Bi horietan, Euskadiren balioak % 9 eta % 8 handiagoak dira, hurrenez hurren.
- Suediarekin alderatuz gero, EIGEn datuen arabera berdintasun arloan Europan aurretik dabilen herrialdea, ikus dezakegu Euskal AEko GBIn nahiko pareko mailak lortu dituela Osasunari eta Diruari dagokienez, baina oraindik ere urrun dagoela Botere eta Denborari dagokienez Suediak lortutako mailetatik.

## 2. Euskal AEko Genero Berdintasunaren Indizea europar testuinguruan

EIGEk erabilitako metodologiaren arabera, Euskal AEko genero-berdintasunak 69,3 puntu lortu zituen. Izaera adimentsionala dela eta, Genero Berdintasunaren Indizea hobeto interpretatzen da herrialde eta eskualde desberdinetan lortutako emaitzak konparatzen direnean. 1. Taulak Euskal AEko Genero Berdintasunaren Indizearen emaitzak testuinguru batean kokatzeko lehenengo saiakera bat aurkezten du, Espainia eta Europakoekin alderatuz (EB-28).

**1. taula- Genero berdintasunaren indizea 2010-2015**

	2010	2012	2015	Aldakuntza 2010-2012	Aldakuntza 2012 -2015
<b>Euskal AE</b>	68,8	69,1	69,3	0,3	0,2
<b>Espainia</b>	66,4	67,4	68,3	1,0	0,9
<b>EB-28</b>	63,8	65,0	66,2	1,2	1,2

**Iturria: EUSTAT. Egiturako adierazleak. Genero berdintasunaren indizea**

Emaitzen arabera, Euskal AEn Espainia edo Europar Batasun osoan antzematen denaren gainera dagoen berdintasun-maila bat lortu da. Gainera, horiek ikusita, ondoriozta dezakegu 2010 eta 2015 urteen artean Euskal AEk aurrerapausoak eman dituela genero-berdintasunari dagokionez. Hala ere, taulan ikusten denaren arabera, 2010 eta 2015 urteen arteko genero-berdintasunak aurrerapen handiagoa izan du Espainian, Euskal AEn baino; izan ere, indizea 1,9 puntu handitu da; eta, Euskadin, 0,5. Hobekuntza are nabarmenagoa izan da EB-28 taldean. Bertan 2,4 puntu igo da indizea, 2010 eta 2015 urteen artean.

2. Taulak ikuspegi zabalagoa ematen du eta Europar Batasunean egun dauden 28 herrialdeen emaitzak ikus daitezke, Euskal AEkoekin batera. Bertan ikusten da genero-berdintasuna garapen ekonomiko eta sozialarekin erlazionatzen dela Europako gizarteetan. 2015eko emaitzak oinarri hartuta, ikus daiteke, salbuespenak salbuespen, Europako proiektuaren ardatza osatzen duten proiektuak taularen lehenengo erdian daudela. Izan ere, Eslovenia kenduta, Europako batez bestekoaren gainetik dagoen indize bat lortu duten herrialde guztiak 1995etik Batasuna osatzen duten 15 herrialdeen artean daude; zerranda horren amaieran dago, hain zuzen ere, Espainia. Europako batez bestekoaren azpitik, lehenengo hirurak dira Alemania, Austria eta Italia; eta, horien atzetik agertzen dira sailkapenean Europako erdialde eta ekialdeko ia-ia herrialde guztiak, Europarekin duela denbora gutxiago bat egindakoak. Talde horren barruan agertzen dira soilik Europako hegoaldeko bi herrialde: Portugal eta Grezia.

## 2. taula. Europar Batasunean iritsitako balioaren aldean (28-EB=100)

	2010		2012		2015	
	GBI	Indizea (28-EB =100)	GBI	Indizea (28-EB =100)	GBI	Indizea (28-EB =100)
Suedia	80,1	126	79,7	123	82,6	125
Danimarka	75,2	118	75,6	116	76,8	116
Finlandia	73,1	115	74,4	114	73,0	110
Herbehereak	74,0	116	74,0	114	72,9	110
Frantzia	67,5	106	68,9	106	72,6	110
Erresuma Batua	68,7	108	68,9	106	71,5	108
Belgika	69,3	109	70,2	108	70,5	106
Irlanda	65,4	103	67,7	104	69,5	105
<b>Euskal AE</b>	<b>68,8</b>	<b>108</b>	<b>69,1</b>	<b>106</b>	<b>69,3</b>	<b>105</b>
Luxemburgo	61,2	96	65,9	101	69,0	104
Eslovenia	62,7	98	66,1	102	68,4	103
Espainia	66,4	104	67,4	104	68,3	103
Alemania	62,6	98	64,9	100	65,5	99
Austria	58,7	92	61,3	94	63,3	96
Italia	53,3	84	56,5	87	62,1	94
Malta	54,4	85	57,8	89	60,1	91
Bulgaria	55,0	86	56,9	88	58,0	88
Letonia	55,2	87	56,2	86	57,9	87
Polonia	55,5	87	56,9	88	56,8	86
Lituania	54,9	86	54,2	83	56,8	86
Estonia	53,4	84	53,5	82	56,7	86
Portugal	53,7	84	54,4	84	56,0	85
Zipre	49,0	77	50,6	78	55,1	83
Txekiar Errepublika	55,6	87	56,7	87	53,6	81
Kroazia	52,3	82	52,6	81	53,1	80
Errumania	50,8	80	51,2	79	52,4	79
Eslovakia	53,0	83	52,4	81	52,4	79
Hungaria	52,4	82	51,8	80	50,8	77
Grezia	48,6	76	50,1	77	50,0	76

Iturria: EUSTAT. Egiturako adierazleak. Genero berdintasunaren indizea

Laburbilduz, EB-28 multzoko herrialdeen sailkapenak bitan zatitutako Europa bat erakusten du, genero-berdintasun mailaren arabera. Lehenengo erdia 1995etik Batasuna osatzen zuten 15 herrialdeek osatzen dute; eta, bigarrena, erdialdeko eta ekialdeko Europako herrialdeek, duela denbora gutxiago Europar Batasunarekin bat egindakoak. Hiru herrialde soilik daude zatiketa horren ildotik kanpo: Eslovenia, lehenengo taldean dagoena, Portugal eta Grezia, bigarrenen daudenak, a priori espero zitekeena baino atzeragoko postuetan daudenak.

Euskal AE aipatutako bi taldeetako lehenengoan dago, ikuspuntu ekonomiko eta sozialetik garatuen dauden Europako herrialde gehienekin batera. Euskal AEn posizioa diskretua dela eman dezake (bederatzigarren lekuan dago Europako estatuen sailkapenean txertatzen denean), baina ez da hala, ikusita sailkapena zein estua den, bereziki EB-28 taldearen batez besteko balioaren gaineratik dauden herrialdeen artean. Sailkapenaren lehenengo bi postuetan agertzen diren herrialdeak alde batera utzita, Suedia eta Danimarka -biak tradizio progresista handikoak eta gizarte zerbitzu publiko sare sendo baten bidez emakumeen laneratzea ahalbidetu duen ongizate sistema sendoak dituztenak-, Europar Batasunaren Indizea gainditzen duten gainerako bederatzi herrialdeen artean 4,7 puntuko aldea dago. Bi posturen artean dauden aldeak hain txikiak dira, askotan puntu batera ere heltzen ez direnak, ezin dira adierazgarritzat jo. Beste era batera esanda, sailkapen horretan Euskal AEk une honetan daukan posizioa edozein dela ere (2010ean eta 2012an seigarren postuan zegoen), Euskal AEko genero-berdintasun maila, neurri sintetiko honen arabera, Europako erreferentziazko herrialdeenaren parekoa da, Suedia eta Danimarkaren kasuetan izan ezik, horiek gainerakoaren gaineratik baitaude, nabarmen.

### **3. Genero berdintasunaren adierazleak Euskadin, dimentsio eta azpidimentsioen arabera**

Genero-berdintasunaren indizea neurri sintetiko bat da eta balio bakar batean laburbiltzen ditu errealitatearen aspektu desberdinak. EIGEK proposatutako eskeman, Genero Berdintasunaren Indizea 31 adierazle oinarri hartuta behatu den berdintasun-mailatik abiatuta eraikitzen da; lehenengo 14 azpidimentsio eta ondoren 6 dimentsiotan banatzen dira adierazle horiek, Indize Nagusian txertatu aurretik. Genero Berdintasunaren Indizeko balio jakin batek emaitza desberdinak izan ditzake dimentsio eta azpidimentsioetako bakoitzean, eta desberdintasun horiek argitara irteten dira soilik emaitzak zehatz-mehatz aztertzen direnean.

Euskal Autonomia Erkidegoan, indize nagusiak 69,3ko puntuazioa lortu zuen 2015ean, baina dimentsio bakoitzeko berdintasun-neurriak nahiko aldatzen dira euren artean (ikus 3. taula). Termino absolutuetan, Euskal AEko emaitzak hobeak dira Osasun, Dirua, Denbora eta Enpleguari dagokienez. Bereziki, Euskal AE genero berdintasun birtualetik oso gertu dago osasunaren egoerari eta osasun zerbitzuei dagokienez. Egoera ekonomikoaren azpidimentsioan, errentaren banaketari dagozkion berdintasun-neurriak kontuan hartzen dituenak, emaitza horiek ere oso gertu daude lortu daitekeen berdintasun-maila gorenetik.

Aldiz, emaitzak okerragoak dira Ezagutzaren inguruko arloetan eta, batez ere, Boterea ematen duten postuei dagokienez. Boterearen dimentsioan gertatutakoaren xehetasuna deigarria da: botere politikokoaren arloko berdintasuna, gizon eta emakumeen ordezkariak eta erabakimen politikoko organoetan duten parte-hartzearen arabera neurtzen dena (Eusko Jaurjaritza, Euskal Legebiltzarra eta Batzar Nagusiak), nahikoa altua da. Aldiz, gizarte erakunde batzuetako eta, batez ere, enpresa munduko botere-postuetan emakumeen duten presentzia askoz ere baxuagoa da.

Baina egia da, genero-berdintasuna ez dela modu homogeenan lortu bizitzaren arlo guztietan, ez Euskal AEn, ez munduko beste inon. Botere postuetara heltzeko bidea generoen arteko desberdintasunez josia dago oraindik ere, bai Euskal AEn, baita Europa osoan ere. Hori dela eta, genero-berdintasunaren arloan egindako aurrerapenen azalpenak beste ikuspegi bat behar du termino

erlatiboetan hitz egiten denean, hau da, Euskal AEn izandako lorpenak inguruan emandakoekin konparatzen direnean. Esaterako, ikuspuntu honetatik zera antzeman dezakegu: Euskal AEko Botere arloko emaitzak beste dimentsio batzuetakoak baino apalagoak izan arren Batasuneko herrialde guztietan gertatzen denarekin alderatuta, Euskal AEko egoera erlatiboa hobea da dimentsio honetan, beste edozeinetan baino. Genero berdintasunaren arloko kalifikazioa Europako batez bestekoa baino % 9 handiagoa da. Euskal AEko aurrerapenak nabarmenak dira Denborari dagokionez ere, termino erlatiboetan. Euskal AEko emaitzak EB-28ko taldekoak baino % 8 handiagoak dira eta, Diruari dagokionez, % 6 handiagoak.

### 3. taula- Euskal AEko Genero Berdintasunaren Indizea.

Xehakapena dimentsioen eta azpidimentsioen arabera eta alderaketa 28-EBrekin

	2010		2012		2015	
	GBI	Indizea (28-EB=100)	GBI	Indizea (28-EB=100)	GBI	Indizea (28-EB=100)
<b>GBI</b>	<b>68,8</b>	<b>108</b>	<b>69,1</b>	<b>106</b>	<b>69,3</b>	<b>105</b>
<b>Enplegua</b>	<b>70,3</b>	<b>100</b>	<b>71,3</b>	<b>100</b>	<b>72,2</b>	<b>101</b>
Parte-hartzea	76,7	98	79,2	101	80,6	101
Banantzea eta lanaren kalitatea	64,4	101	64,1	100	64,7	101
<b>Dirua</b>	<b>83,1</b>	<b>106</b>	<b>83,0</b>	<b>106</b>	<b>84,5</b>	<b>106</b>
Finantza-baliabideak	73,6	106	72,8	104	76,1	104
Egoera ekonomikoa	93,8	106	94,6	108	93,9	108
<b>Ezagutza</b>	<b>61,2</b>	<b>99</b>	<b>61,3</b>	<b>97</b>	<b>63,9</b>	<b>101</b>
Lortze eta parte-hartzea	70,6	103	70,0	100	70,8	98
Segregazioa	53,0	95	53,6	95	57,7	104
<b>Denbora</b>	<b>73,4</b>	<b>111</b>	<b>74,7</b>	<b>108</b>	<b>70,7</b>	<b>108</b>
Zaintzei lotutako jarduerak	88,7	132	87,6	121	89,3	128
Gizarte jarduerak	60,8	93	63,7	97	56,0	91
<b>Boterea</b>	<b>54,3</b>	<b>130</b>	<b>54,3</b>	<b>125</b>	<b>52,9</b>	<b>109</b>
Botere politikoari	81,7	173	87,9	182	80,4	152
Botere ekonomikoa	38,6	134	35,8	113	36,3	92
Botere soziala	50,7	94	50,7	94	50,7	92
<b>Osasuna</b>	<b>91,3</b>	<b>105</b>	<b>91,2</b>	<b>105</b>	<b>90,9</b>	<b>104</b>
Osasun egoera	97,0	106	96,0	105	96,2	105
Jokaera osasungarria	80,6	107	80,6	107	80,6	107
Osasunaren eskuragarritasuna	97,4	101	97,9	101	96,8	100

Iturria: EUSTAT. Egiturako adierazleak. Genero berdintasunaren indizea


### 4. Euskal AEko Genero Berdintasunaren Indizea; analisi konparatua

Aurreko bi ataletan, Euskal AEko emaitzak Europar Batasunekoekin alderatuta aurkeztu dira; izan ere, azaldu den moduan, Indizearen izaera adimentsionala dela eta, komeni da herrialde edo eskualde jakin bateko datuak konparaziozko ikuspegi batetik ematea. Atal honetan estrategia berarekin jarraituko dugu, baina konparazioaren erreferentzia aldatu egingo da eta Euskadiko emaitzak beste hauekin batera aurkeztuko dira: Espainiakoekin, erreferente gertukoena dena; Europar Batasunekoekin, europar estatistikan ohikoena dena; eta Suediakoekin, herrialde hori baita genero berdintasunaren arloan kalifikazio onenak lortzen dituen.

Espainiari dagokionez, lehenengo ondorioa zera da: Euskal AEk Genero Berdintasunaren Indize altuagoa daukala. Hala ere, zirkunstantzia hori ez da errepikatzen Indizea osatzen duten dimentsio guztietan. Horietako hirutan, -Enplegua, Ezagutza eta Boterea- esaterako, Espainiaren emaitzak apur bat hobek dira. Gainerako hiru dimentsioetan -Dirua, Denbora eta Osasuna-, aldiz, posiziorik onena


Euskal AERI dagokio. Sei dimentsio horietatik bitan -Dirua eta Denbora- Euskadi eta Espainiaren arteko aldea 5 puntukoa ere da; gainerako kasuetan, aldea txikiagoa da. Irudi orokorra, beraz, hauxe da: genero-berdintasunaren egoera oso antzekoa dela Euskadin eta Espainian, gutxienez zehaztasun-maila honetan.

### 1. Grafikoa Genero Berdintasunaren Adierazleak dimentsioen arabera. Euskal AE eta Espainia. 2015



Euskadi eta Espainiaren arteko konparazio honen terminoak errepikatu egiten dira, baina ñabardura batzuekin, konparazioa Europar Batasuneko 28 herrialdeekin egiten denean (EB-28). Kasu honetan, Euskal AEk EB-28 taldeak baino emaitza hobea lortzen du Metodologian aintzat hartutako sei dimentsioetan. Hala ere, desberdintasunak, grafikoan ikus daitezkeen moduan, ez dira kasu batean ere bost puntutik gorakoak. Esan genezake Euskal AEko egoera EB-28 taldekoaren parekoa dela genero berdintasunari dagokionez, bai berdintasun-maila orokorretan, baita sei dimentsioetako bakoitzaren emaitzetan ere.


### 2. Grafikoa Genero Berdintasunaren Adierazleak dimentsioen arabera. Euskal AE eta EB-28. 2015



EB-28 taldeak oso egoera desberdinak hartzen ditu barne genero berdintasunari dagokionez; hori dela eta, normala da Euskal AE eta EB-28 taldearen arteko emaitzen antzekotasuna ez egiaztatzea Batasuna osatzen duten herrialde guztietan, ezta gehienetan ere. Esaterako, genero politikak gehien garatu dituzten herrialdeak eta, seguru aski, sexuen arteko berdintasunerako onuragarrien diren kulturak dituztenak iparraldekoak dira; eta, horien artean, ia beti Suedia hartzen da erreferentzia moduan. Suedia da, Europar Batasuneko herrialde guztien artean, Genero Berdintasunaren Indizean kalifikaziorik onena lortu duena, EIGEn datuen arabera; gainera, serieko hiru urteetan zehar sendotuz joan da aurrerapauso hori. Beraz, normala da Suedia eredutzat hartzea, gainerako herrialdeentzako jarraibide moduan.

Euskal AEn indizeko sei dimentsioetan lortutako emaitzak Suediakoekin konparatzen direnean, ikus dezakegu bi fazetatan direla parekagarriak Euskal AEn eta Suediaren lorpenak. Dimentsio bi horiek Dirua eta Osasuna dira eta, horietan, Euskal AEn datuak Suediako datuetatik bost puntu baino gutxiagora daude. Esan dezakegu emaitza horien atzean euskal erakundeek osasun eta gizarte babesaren arloan egindako lan ona dagoela, beste gauza batzuen artean, merkatuak eragiten dituen desoreka ekonomikoak arintzera bideratuak. Konparaketak erakusten du, halaber, zein fazetatan daukan Euskadiko Autonomia Erkidegoak hobekuntzarako marjina handiagoa. Batez ere, Denbora eta Diruaren arloekin gertatzen da. Dimentsio bi horietan, Suedia Europako herrialdeen buru da, gainerakoekiko alde nabarmenarekin. Botere politikoarekin gertatzen dena adierazten duen azpidimentsioan, esaterako, Suedia genero berdintasun birtualetik oso gertu dago, 93,9ko berdintasun-mailarekin; botere sozialari dagokionez, 87,8 puntukoa da, sailkapeneko hurrengo herrialdeak baino hamabost puntu gehiago. Euskal AE nahiko urrun dago lorpen horietatik.

### 3. Grafikoa Genero Berdintasunaren Adierazleak dimentsioen arabera. Euskal AE eta Suedia. 2015



## 5. Genero Berdintasuna Europan

Emaizten analisiaren azken atal honek gaur egun Europar Batasuna osatzen duten herrialdeek Genero Berdintasunaren Indizearen barne-egitura osatzen duten sei dimentsioetan lortutako emaitzen arteko konparaketa zehatz bat aurkezten du.



**4. taula- Genero Berdintasunaren Indizea eta berdintasun-neurriak dimentsioen arabera 28-EBn. 2015**

	GBI		Enplegua		Dirua		Ezagutza	
	Berdintasunaren neurria	Postua	Berdintasunaren neurria	Postua	Berdintasunaren neurria	Postua	Berdintasunaren neurria	Postua
Suedia	82,6	1	82,6	1	87,5	3	72,8	2
Danimarka	76,8	2	79,2	2	86,6	5	73,6	1
Finlandia	73,0	3	74,7	6	86,4	6	61,3	14
Herbehereak	72,9	4	76,7	3	86,8	4	67,3	6
Frantzia	72,6	5	72,1	15	86,1	7	66,1	8
Erresuma Batua	71,5	6	76,6	4	81,2	14	71,8	3
Belgika	70,5	7	73,8	9	87,5	2	71,1	4
Irlanda	69,5	8	73,9	8	84,7	9	66,4	7
<b>Euskal AE</b>	<b>69,3</b>	<b>9</b>	<b>72,2</b>	<b>13</b>	<b>84,5</b>	<b>10</b>	<b>63,9</b>	<b>11</b>
Luxemburgo	69,0	10	74,0	7	94,4	1	69,4	5
Eslovenia	68,4	11	71,8	17	81,6	13	55,0	22
<b>Espainia</b>	<b>68,3</b>	<b>12</b>	<b>72,4</b>	<b>12</b>	<b>75,9</b>	<b>18</b>	<b>65,3</b>	<b>9</b>
Alemania	65,5	13	71,4	18	84,2	11	52,9	26
Austria	63,3	14	76,1	5	85,9	8	63,2	12
Italia	62,1	15	62,4	29	78,6	16	61,4	13
Malta	60,1	16	71,0	19	82,4	12	65,2	10
Bulgaria	58,0	17	68,6	22	61,9	28	53,3	24
Letonia	57,9	18	73,6	10	64,3	27	48,9	29
Polonia	56,8	20	66,8	25	73,3	20	56,0	19
Lituania	56,8	19	73,2	11	65,6	26	55,8	20
Estonia	56,7	21	72,1	14	66,7	25	53,2	25
Portugal	56,0	22	72,0	16	70,9	21	54,8	23
Zipre	55,1	23	70,7	20	79,2	15	58,5	16
Txekiar Errepublika	53,6	24	66,1	26	75,9	17	57,3	17
Kroazia	53,1	25	69,4	21	69,9	24	49,8	28
Errumania	52,4	26	67,1	24	59,4	29	51,8	27
Eslovakia	52,4	27	65,5	27	74,0	19	60,0	15
Hungaria	50,8	28	67,2	23	70,7	23	56,9	18
Grezia	50,0	29	64,2	28	70,7	22	55,6	21

Iturria: EUSTAT. Egiturako adierazleak. Genero berdintasunaren indizea

**4. taula (jarraipena)- Genero Berdintasunaren Indizea eta berdintasun-neurriak dimentsioen arabera 28-EBn. 2015**

	GBI		Denbora		Boterea		Osasuna	
	Berdintasunaren neurria	Postua	Berdintasunaren neurria	Postua	Berdintasunaren neurria	Postua	Berdintasunaren neurria	Postua
Suedia	82,6	1	90,1	1	79,5	1	94,1	1
Danimarka	76,8	2	83,1	3	61,5	4	89,6	10
Finlandia	73,0	3	77,4	4	65,3	3	89,7	9
Herbehereak	72,9	4	83,9	2	52,9	11	89,9	8
Frantzia	72,6	5	67,3	11	68,2	2	87,1	15
Erresuma Batua	71,5	6	69,9	9	53,0	10	93,1	2
Belgika	70,5	7	65,3	13	53,4	8	86,3	16
Irlanda	69,5	8	74,2	6	48,6	13	90,6	6
<b>Euskal AE</b>	<b>69,3</b>	<b>9</b>	<b>70,7</b>	<b>8</b>	<b>52,9</b>	<b>12</b>	<b>90,9</b>	<b>5</b>
Luxemburgo	69,0	10	69,1	10	43,5	15	89,0	12
Eslovenia	68,4	11	72,9	7	60,6	5	87,7	14
<b>Espainia</b>	<b>68,3</b>	<b>12</b>	<b>64,0</b>	<b>16</b>	<b>57,0</b>	<b>6</b>	<b>89,6</b>	<b>11</b>
Alemania	65,5	13	65,0	14	53,0	9	90,5	7
Austria	63,3	14	61,2	17	34,9	19	91,7	4
Italia	62,1	15	59,3	18	45,3	14	86,3	17
Malta	60,1	16	64,2	15	27,4	24	91,8	3
Bulgaria	58,0	17	42,7	29	56,0	7	76,4	28
Letonia	57,9	18	65,8	12	39,0	16	78,4	27
Polonia	56,8	20	52,5	21	35,1	18	82,2	24
Lituania	56,8	19	50,6	24	36,6	17	79,1	26
Estonia	56,7	21	74,7	5	28,2	23	81,5	25
Portugal	56,0	22	47,5	26	33,9	20	83,6	21
Zipre	55,1	23	51,3	22	24,7	25	88,2	13
Txekiar Errepublika	53,6	24	57,3	19	22,6	27	86,0	18
Kroazia	53,1	25	51,0	23	28,5	22	83,3	22
Errumania	52,4	26	50,3	25	33,2	21	70,4	29
Eslovakia	52,4	27	46,3	27	23,1	26	85,3	20
Hungaria	50,8	28	54,3	20	18,7	29	86,0	19
Grezia	50,0	29	44,7	28	21,7	28	83,1	23

Iturria: EUSTAT. Egiturako adierazleak. Genero berdintasunaren indizea

Aurreko atal batean aipatu da genero berdintasunaren arloan Europa bi taldetan banatzen dela, argi eta garbi. Horietako lehena 1995ean europar proiektua osatzen zuten 15 herrialdeek osatzen dute, garapen ekonomikoari dagokionez maila altuenak eta Genero Berdintasunaren Indizeari dagokionez emaitzarik onenak dituztenak. Saikapenaren goiko aldean iparraldeko hiru herrialde daude, Suedia, Danimarka eta Finlandia; horrela, egiaztatzen da herrialde horien inguruan betidanik izan dugun inpresio bat, hau da, gizarte berdintasuna lortzeko ahalegin berezi bat egin dutela historikoki, eta horren barruan sartzen da genero berdintasuna. Bigarren taldean Europako erdialde eta ekialdeko herrialde gehienak daude, gerora Europar Batasunarekin bat egin dutenak, garapen ekonomiko txikiagoa izan dutenak eta politikoki historial nahiko desberdinak dutenak. Salbuespen moduan, Grezia eta Portugal ere daude barruan.

Ondoren, dimentsio bakoitzaren emaitzak errebisatuko dira, azaldutako patroio orokorra errepikatzen ote den (edo ez guztietan) konprobatzeko asmoz, eta patroio horrekiko desberdintasun nabarmenik dagoen ikusteko.

### **Enplegua**

Iparraldeko herrialdeak saikapenaren buru dira, baina kasu honetan abantaila ez da beste batzuetan bezain nabarmena. Gainera, Finlandia pixka bat atzerago dago, indize orokorrean dagokiona baino. Bestela, irizpide orokorra errepikatu egiten da dimentsio honetan, batez ere ekonomikoki garatuago dauden herrialdez osatutako bigarren talde batekin, eta erdialdeko eta ekialdekoak sartzen diren azken talde batekin. Kasu honetan, nabarmenezkoa da Europako hegoaldeko bi herrialde, europar tradizio luzearekin, saikapenaren beheko aldean egotea: Grezia eta Italia. Espainiak eta Euskal AEk oso antzeko balioa lortu dute dimentsio honetan, eta Europako batez bestekoaren apur bat gaineratik daude.

### **Dirua**

Hori da iparraldeko herrialderik buru ez daukan dimentsio bakarra. Luxemburg dago lehenengo posizioan. Hiri-estatu honetan soldatak oso altuak dira, beraz, genero berdintasunaren adierazleak goranzko joera hartzen du. Luxemburgez gain, errenta maila altuko beste herrialde batzuk ere, hala nola Belgika eta Holanda, saikapenaren goiko aldean daude. Gainerakoan, azaldutako joera orokorra errepikatzen da. Europar tradizio handiena duten herrialdeak taularen lehenengo zatian daude; eta erdialde eta ekialdekoak bigarren zatian, Portugal eta Italiaren salbuespenarekin. Euskal AE hasierako taldean dago, eta Belgikak, bigarren sailkatuak lortutako balioa baino hiru puntu beherago soilik. Espainia, aldiz, taularen bigarren zatian dago.

### **Ezagutza**

Europako herrialdeen saikapenean Suedia buru ez duten dimentsio bakarrak dirua eta ezagutza dira. Kasu honetan, Suediaren ordezt Danimarka dago, tradizio sozialdemokrata handiko iparraldeko beste herrialde bat. Eskema ohikoa da, baina kasu honetan salbuespenak beste batzuk dira: Alemania posizio nahiko baxuetan dago, harrigarria badirudi ere, eta Europako batez bestekoaren nahiko azpitik; Greziak eta Portugalek ere aurrea hartzen diote, kasu honetan. Espainia eta Euskal AE indize orokorrean dauzkaten posizioen antzekoetan kokatzen dira.

### **Denbora**

Beste behin ere, patroio orokorra antzematen da. Saikapenaren goiko aldean, salbuespen moduan, Holanda dago, bigarren postuan. Aipatu behar da, halaber, ekialdeko herrialdeetan -Estonia eta Eslovenia- herrialde garatu batzuen gaineratik dauden balioak lortzen dituztela, hala nola Erresuma Batua, Frantzia edo Alemaniaren gaineratik. Dimentsio horretan, Espainiaren posizioa indize orokorrekoa baino apur bat baxuagoa da.

### **Boterea**

Kasu honetan, patroio orokorraren salbuespenak Frantziak dakartza, saikapenaren bigarren postuan baitago, Finlandia eta Danimarkaren eta Eslovenia eta Bulgariaren gaineratik, garapen ekonomiko handiagoa duten herrialdeen ohiko posizioak dituztenak. Grezia saikapenaren postu baxuenetako batean dago oraingoan ere. Espainia eta Euskal AE taularen lehenengo zatian daude.

### **Osasuna**

Azkenik, Osasunari dagokionez, Erresuma Batuak eman digu sorpresa, bigarren posizioan baitago; zalantzarik gabe, Osasun Zerbitzu Nazional tradizionalak egindako lanaren ondorioz. Euskal AEk nahiko postu altua dauka dimentsio horretan eta, are garrantzitsuagoa dena, Suediaren nahiko antzeko puntuazioa lortu du. Azken hori da, kasu honetan ere, sailkapenaren buru.

Organismo Autónomo del



[www.eustat.eus](http://www.eustat.eus)